

MUTUALISMOARI BURUZKO JARDUNALDIA

"Krisiari aurre egiteko baloreetan, ezagutzan eta giza kapitalean oinarritutako ekonomia behar dugu"

Valentziako Unibertsitate Politeknikoko errektore eta Nekazaritza Ekonomiako katedradun Juan Juliá Igualek ziurtatu zuenez, iragan otsailaren 17an EHUko Zuzenbide fakultatean egindako jardunaldian, gizarte ekonomiako enpresak "instrumentu egokiak dira krisi garaian garapen ekonomiko eta soziala lortzeko".



INFORMAZIO +

... gainera

GIZARTE EKONOMIAK EUSKADIN BIZI DUEN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA EZTABAIDATUKO DU EUSKO LEGEBILTZARRAK

Eusko Legebiltzarreko Enplegu eta Gizarte Gaietako saileko Batzordeak hilaren 30ean eztabaidatuko du gizarte ekonomiak Euskadin bizi duen egoerari buruzko txosten bat. Dokumentu hori Eusko Jauriaritzak egin du, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren ekarpenak kontuan hartuta. Lanak kooperatiben sektorea eta gizarte ekonomiaren barruan dauden beste entitateak aztertuko ditu, irabazi asmorik gabeko sektorea -hirugarren sektorea- barne. Gainera, txostenak proposatzen ditu gizarte ekonomiak Euskadin garatzeko jarraitu beharreko ildo estrategikoak eta arauetan egin beharreko aldaketak edo egokitzapenak. [Informazio gehiago](#)

ENPRESEN LEHIAKORTASUNA AREAGOTZEN LAGUNTZEKO GIDA ARGITARATU DUTE

['Kudeaketa aurreratu baterantz, lehiakortasuna areagotzeko giltzarri'](#) izeneko dokumentua Euskadiko elkarte eta enpresei aholkuak ematen dizkie lehiakorragoak izan daitezen. Halaber, Eusko Jauriaritzak 2010-2013 Enpresen Lehiakortasun Plan berriak jasotzen dituen funtsezko jarduera-lerroak uztartzen ditu. Dokumentu hori erakunde eta entitate askoren elkarlanaren emaitza da. Horretan parte hartu dute, esaterako, Eusko Jauriaritzak, SPRIK, Euskalitek, Innobasquek, Orkestrak, Izaitek, Confebaskek, Osakidetzak, Mondragonek eta ASLEK.

IOSU ZABALA BERRIZ HAUTATU DUTE MU-KO ERREKTORE

Mondragon Unibertsitateko (MU) Kontseilu Errektoreak Iosu Zabala izendatu du errektore beste lau urterako 2006ko otsailetik dago

MUTUALISMOARI BURUZKO JARDUNALDIA



Armando Nieto: "Elkartzen ez bagara, mutualismoak ez du etorkizunik"

Gezkiren jardunaldiko goizeko saioan bildutako adituek mutualismoak aurrean dituen erronkei buruz hitz egin zuten, bai Espainian bai Europan. Mutualitateek, beste aseguru-entitateen aldean, dituzten zerga eta legezko erregimenak ere izan ziren hizpide. Azkenik, mugimendu hori indartzeko lobby bat eratzea proposatu zuten mutualismoak indar handiagoa izan dezan, erakundeen aurrean eta gizartearen elkarre- sarean.

INFORMAZIO +

MUTUALISMOARI BURUZKO JARDUNALDIA

"Mutualitateen idiosinkrasia aintzat hartzen duten abantaila fiskalak aldarrikatzen ditugu"

Divina Pastora Espainiako hiru mutualitate nagusien artean dago. Mutualitateen biziraupena bermatzeko hiru aldarrikapen nagusi aipatzen ditu Divina Pastorako presidentek: batetik, mutualitateen idiosinkrasia kontuan hartzen duten zerga-abantailak; bigarrenik, etekinak konpainia hazteko inbertitu ahal izatea eta, akziodun enpresetan bezala, horien tributazioa desagerraraztea; eta, azkenik, erabakitze guneetan ordezkaritza indartsua izateko mutualitateen lobby-a osatzea.



+ INFORMACIÓN



Euskadiko Kooperatibak Lanbidetik kanpo utzi dituen araudiaren kontrako helegitea jarri du Konfekoopek

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak, Konfekoopek, Lanbide zerbitzuaren funtzionamendua arautzen duen legearen kontrako helegitea aurkeztu du, bere ustean, kooperatibak "inolako arrazoirik gabe" administrazio kontseilutik kanpo utzi dituelako. Konfekoopek iritziz, Gizarte Gaietako saila eta Confebask dira erabaki horren errudunak.

INFORMAZIO +

Eusko Jaurlaritzak 9,3 milioi euro inbertitu ditu laneratze enpresak laguntzeko

Eusko Jaurlaritzak 9,3 milioi euro inbertitu zituen 2010ean laneratze enpresen finantziazioan laguntzeko. Guztira, 42 enpresa daude Euskadin, Gizatea elkartearen barruan. Gemma Zabaletak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak, datuok eman zituen Laneratze Enpresen Europako Azokan (Inserciona). Lehen edizioa Bartzelonan ospatu zen, hilaren 23an eta 24an, eta Eusko Jaurlaritzak hurrengo ekitaldia Euskadin hartzeko asmoa du, 2013an.



INFORMAZIO +



Eroskiko bazkideek euren soldatak izoztuko dituzte eta lanaldia %5ean handituko dute krisiari aurre egiteko

Agustin Markaide Eroskiko presidente berriak aditzera eman du, bestalde, konpainia kooperatiboak "inbertsio erritmoa" murriztu duela, "ekonomiak bultzada berri bat izango duela dioten aurreikuspen horiek argitu" eta finantza sektorean "mugimenduak" antzematen hasten diren arte.

INFORMAZIO +

Mondragonek bat egin du "Interneteko kutxa gotor" gisa ezagutzen den Metaposta sistemarekin

Euskadiko Kutxak, Lagun Arok eta Eroskik erreminta hori erabiliko dute bezeroei beren banku, aseguru eta banaketa komertzialeko negozioei buruzko dokumentazioa igortzeko. Ipar Kutxa finantza entitateak ere bareratu da proiektuan.



INFORMAZIO +



Gizarte ekonomiak Espainiako BPGren %10a fakturatu zuen eta bi milioi lanpostu sortu zituen 2008an

Gizarte ekonomiaren barruan dauden 200.000 inguru entitateek 116.000 milioi euro fakturatu zituzten 2008an, hau da, Espainiako Barne Produktu Gordinaren (BPG) %10a. Enpleguari dagokionez, 1,2 milioi zuzenean lanpostu sortu zituzten. Zeharkakoak erantsiz gero, guztira bi milioi lanpostu sortu zituzten, lanean dagoen populazioaren %10, CIRIEC-Españañ egindako azterlan baten arabera.

INFORMAZIO +

kargu horretan. Kontseiluak nabarmendu du Zabalak "paper garrantzitsua izan duela unibertsitatean, maila globaleko garapen eta sustapen proiektuen garapenean". Horiek posible egin dute "Mondragon Unibertsitateak egun duen hedapena". Zabala Elektronika, Elektroteknia eta Automatikan doktorea da, eta bere ibilbide profesionala lotua dago mundu kooperatiboarekin, teknologia, ikerketa eta kudeaketa



Martxoak 16
Ekonomia Solidarioari buruzko IV. Nazioarteko Jardunaldiak. Iruñean eta on-line. [Egitaraua](#)

Apirilaren 6tik 8ra
CIRIECeko Gizarte Ekonomiaren Ikerzaileen Nazioarteko Biltzarra. Valladolid. www.ciriec.es

Gizarte ekonomiak emakumeak ardura postuetara iristeko bidea errazten du

CEPES Andaluziak egindako ikerketa baten arabera, gizarte ekonomiaren formula juridikoak errazten du emakumeek ardura postuak har dezaten. Lanpostu horietatik, gainera, arlo pertsonala, soziala eta enpresariala uztartzen dituen kudeaketa ereduak eratzeko aukera daukate.

INFORMAZIO +



Bosch-Siemens eta Ford enpresen eskaera garrantzitsuak lortu ditu OnaPres-ek

OnaPres Bizkaiko kooperatibak prentsa berri bat ekoitziko du Bosch-Siemens multinazionalak Santanderren dituen instalazioetarako. Halaber, OnaPresen enpresa nagusia den Fagor Arrasatek Fordekin lortu duen akordio batean ere parte hartuko du. Forden eskaera 20 milioikoa da.

INFORMAZIO +

Beste **behatoki**
batzuen
buletinak

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara eta mezuren gaiaren eremuan BAJA hitza ipini